

EAEKO NAZIONALITATE NAGUSIAK

Begirada honetan, Euskal Autonomia Erkidegora atzerriko egoiliar gehien ekartzen duten sei nazionalitateei helduko diegu. EAEn kokatutako atzerriarren erdiak baino gehiago dira nazionalitate horietakoak, eta agerian uzten dute azken zortzi urteetan gertatu den aldaketa handia; izan ere, orain dela hamar urte garrantzitsuak zirenetako ia bat bera ere ez da garrantzitsu gaur egun. Hurrenen hurren, kopuruaren arabera, aipatu nazionalitateak herrialde hauei dagozkie: Kolonbia, Ekuador, Maroko, Portugal, Errumania eta Bolivia.

1. taula. EAEko atzerriarren eboluzioa nazionalitate nagusien arabera. 1999-2006

	1999		2000		2001		2002		2003		2004		2005		2006	
Kolonbia	503	3,0	1.058	5,0	2.845	10,4	6.466	16,8	8.473	17,2	9.044	15,3	10.208	14,0	10.866	13,0
Ekuador	102	0,6	250	1,2	1.219	4,4	2.819	7,3	4.862	9,9	7.038	11,9	7.620	10,5	7.539	9,0
Maroko	1.704	10,1	2.179	10,3	2.720	9,9	3.742	9,7	4.481	9,1	5.505	9,3	6.754	9,3	7.397	8,9
Portugal	3.482	20,7	3.905	18,5	4.031	14,7	4.317	11,2	4.485	9,1	4.607	7,8	5.307	7,3	6.262	7,5
Errumania	115	0,7	212	1,0	394	1,4	699	1,8	1.545	3,1	2.652	4,5	4.253	5,8	6.166	7,4
Bolivia	33	0,2	39	0,2	67	0,2	143	0,4	428	0,9	1.505	2,5	3.484	4,8	5.983	7,2
Gainerakoa	10.854	64,6	13.497	63,8	16.162	58,9	20.222	52,7	24.957	50,7	28.815	48,7	35.268	48,4	39.334	47,1
Guztira	16.793	100,0	21.140	100,0	27.438	100,0	38.408	100,0	49.231	100,0	59.166	100,0	72.894	100,0	83.547	100,0


Iturria: EINKo datuak.

1998an, EAEko atzerriarren %35ek nazionalitate horiek zituzten; 2006. urtean, %53 dira (1. grafikoa). Aldaketa horrek ez dio bakarrik eragiten atzerriarren guztien artean duten pisuari; aitzitik, batik bat, argi uzten digu aldaketa garrantzitsua gertatu dela EAEn bizi den atzerriarren nazionalitateko biztanleriaren osieran. Horrela, Latinoamerikako hiru nazionalitateek, orain dela zortzi urte, EAEko atzerriarren %4 ere ez zituzten hartzen, baina gaur egun ia %30 dira. Latinoamerikako kopuruaren handitzea bat etorri da Europako Erkidegotik etorritako kopuruaren murriztearekin, eta portugaldarrak, adibidez, atzerriarren guztien %20 ziren 1998an, baina %7,5 baino ez 2006an. Europako Erkidegoko biztanleen murrizte hori, neurri batean, erkidegoaz kanpokoek orekatu dute, eta Errumania, ekarpenari dagokionez, orain bosgarren nazioa da, bere ekarpena %1etik %7ra aldatu baita. Gaingiroki, latinoamerikarren presentziak Europako Erkidegoko biztanleena atzean gelditzea ekarri du. Afrikarrek beren kuota mantentzen dute.

Aztertzen ari garenean epean, immigrazioa bost aldiz handiagoa egin da EAEn, baina sei nazionalitate horien batez besteko hazkundea 7,4koa da. Nazionalitate garrantzitsuenen artean, marokoarrak eta portugaldarrak bakarrik daude batez besteko horren azpitik. Marokoarren kopurua lau bider handiagoa egin da eta portugaldarrak bikoiztera ere ez dira iritsi. Beste lau nazionalitateak batez bestekoaren gainetik daude. Kolonbiar jatorria dutenak ugarienak dira, eta horien kopurua hogeitaz bider baino gehiago handitu da. Errumaniarrena berrogeita hamar aldiz baino gehiago, ekuadortarrena hirurogeita hamar aldiz baino gehiago, eta boliviarraren kasua da deigarriena: azken hiru urteetan bakarrik, haien kopurua berrogei aldiz baino gehiago handitu da.


Oso datu interesgarria da aukeratutako nazionalitateen kokatze eredu desberdina (2. grafikoa). Kontuan hartuta 2006. urtearen hasieran errolatutako biztanleak, %33 hemen kokatuta zeuden

1. grafikoa
EAEko sei nazionalitate nagusien pisu erlatiboaren eboluzioa atzerriarren biztanleria 1999-2006




Iturria: EINKo datuak.

2. grafikoa
EAEko atzerriko sei nazionalitate nagusien kokatze ereduak 1999-2006




Iturria: EINKo datuak.

4. grafikoa
EAEko nazionalitate nagusien adin egitura



Iturria: EInko datuak.

5. grafikoa
Bertan bizitzeko baimena duten pertsonen proportzioa nazionalitate nagusien arabera.
2005-12-31



Iturria: EInko datuak.

4. taula. Atzerriko nazionalitate nagusiak eskualdeen arabera. 2005. urtea

	Kolonbia	Ekuador	Portugal	Maroko	Errumania	Bolivia	Guztira
Arabako Kantauri alde	0,3	0,6	0,9	1,3	0,7	0,1	0,7
Gorbeialdea	0,2	0,4	0,9	0,3	0,9	0,1	0,4
Arabako Lautada	19,7	14,4	16,0	27,7	11,2	4,2	17,1
Arabako Mendialdea	0,0	0,3	0,3	0,7	0,3	0,1	0,3
Arabako Errioxa	0,5	0,2	2,4	1,3	2,1	0,4	1,0
Arabako Haranak	0,2	0,1	1,0	0,0	0,0	0,1	0,2
Debagoiena	1,4	1,5	3,7	1,5	0,9	1,8	1,7
Bidasoa Beherea	3,2	3,4	6,8	2,9	3,6	0,5	3,5
Debarrena	1,3	2,3	2,5	5,4	0,5	2,0	2,4
Donostia	9,4	22,3	25,7	8,9	7,6	3,8	13,5
Goierri	0,4	2,9	4,7	4,1	6,5	0,3	2,9
Tolosa	0,4	1,7	2,5	2,1	0,4	0,2	1,3
Urola Kosta	1,0	1,8	2,1	4,5	1,0	0,6	1,9
Arratia-Nerbioi	0,2	1,6	0,4	1,1	2,7	2,2	1,2
Durangaldea	2,0	1,9	4,3	6,2	7,4	3,2	3,8
Enkarterri	0,8	0,8	2,1	0,9	4,6	0,4	1,4
Bilbo Handia	54,1	40,1	18,3	26,8	37,2	72,8	41,2
Gernika-Bermeo	1,0	1,5	1,0	0,8	9,7	3,1	2,2
Markina-Ondarroa	0,6	0,6	2,5	1,4	1,5	0,6	1,1
Plentzia-Mungia	3,2	1,4	2,0	1,9	1,1	3,4	2,2
Araba guztira	20,9	16,0	21,5	31,3	14,3	5,0	19,7
Gipuzkoa guztira	17,1	35,9	48,0	29,4	20,5	9,2	27,2
Bizkaia guztira	61,9	47,9	30,6	39,1	64,2	85,7	53,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EInko datuak.

Errumaniar jatorrikoei dagokienez, ehuneko handi bat Bilbo Handian bizi da (%37), eta gainerako errumaniarrak hainbat eskualdetan bizi dira: %11 Arabako Lautadan, ia %10 Gernika-Bermeo eskualdean, ia %7 Donostialdean eta Durangaldean hurrenez hurren, eta %6,5 Goierriin.

2006ko urtarrilaren 1ean erroldatuta zeuden atzeritarren datuak 2005eko abenduaren 31n bertan bizitzeko baimena zutenen datuekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu bertan bizitzeko baimena duten pertsonen ehuneko handiena kolonbiarra dela (%88). Ondoren ekuadortarrak datoz (%87), marokoarrak (%82), portugaldarrak (%80), errumaniarrak (%45) eta, azkenik, boliviarrak (%29). Boliviarraren eta, neurri batean, errumaniarraren kasua ulertzeko, kontuan hartu behar da horiena orain dela gutxiko immigrazioa dela, eta oraindik ez direla bete pertsona horietako askoren egoera araututa egoteko baldintzak.

2006ko urtarrilean, Gizarte Segurantzaren izena emana zuten 36.203 atzeritar zeuden, hau da, erroldatutako guztien %43, eta horietatik 9.500 EBko atzeritarrek ziren eta 26.700 erkidegoz kanpokoak. Izena emanda daukaten erkidegokoien ehuneko %66koa da, eta erkidegoz kanpokoena %38koa. Nazionalitatei dagokienez, orain arte ikusitakoak berresten duten datuak aurkitzen ditugu. Alde batetik,


5. taula. Bertan bizitzeko txartela edo baimena duten etorkin atzeritarren lurraldeen arabera. 2005-12-31

	Kolonbia	Ekuador	Maroko	Portugal	Errumania	Bolivia	Gainerakoak	Guztira
Erroldatuak	10.866	7.539	7.397	6.262	6.166	5.983	39.334	83.547
Araba	2.325	1.142	2.251	1.466	818	309	8.013	16.324
Gipuzkoa	1.936	2.707	2.247	2.922	1.301	591	12.812	24.516
Bizkaia	6.605	3.690	2.899	1.874	4.047	5.083	18.509	42.707
Bertan bizitzeko baimena	9.566	6.568	6.074	4.983	2.766	1.745	25.693	57.395
Araba	2.169	1.067	2.081	1.050	475	109	5.837	12.788
Gipuzkoa	1.595	2.276	1.640	1.611	642	171	6.981	14.916
Bizkaia	5.802	3.225	2.353	2.322	1.649	1.465	12.875	29.691
Ehunekoak	88,0	87,1	82,1	79,6	44,9	29,2	65,3	68,7
Araba	93,3	93,4	92,4	71,6	58,1	35,3	72,8	78,3
Gipuzkoa	82,4	84,1	73,0	55,1	49,3	28,9	54,5	60,8
Bizkaia	87,8	87,4	81,2	123,9	40,7	28,8	69,6	69,5

Iturria: EInko datuak.

6. grafikoa

Gizarte Segurantzaren izena emana duten atzeritarren eboluzioa (EBkoak eta EBtik kanpokoak). 1998-2006




Iturria: EINKo datuak.

errolatutako portugaldarren %86k izena emanda daukate gizarte segurantzari. Bestetik, gainerako nazionalitate nagusietan bi egoera desberdin daude: errumaniarrak eta boliviarrak atzeratu samar daude, eta kolonbiarren zein ekuadortarren izen-ematea EAEkoaren batez bestekoaren gainetik dago.

Azkenik, gizarte segurantzaren izena emanda egotea erregimenen arabera aztertzen badugu, desberdintasun garrantzitsu batzuk ikus daitezke, laneratze desberdina adierazten dutenak bai nazionalitatearen bai kontinentearren arabera. Etxearekin eta zerbitzu pertsonalekin zerikusia duten lanetan jarduten duten atzeritarren kopurua guztizkoaren %19 da, baina jarduera alor hori hutsaren hurrengoa da marokoarren kasuan, eta ez dago portugaldarrei bagagozkie, baina garrantzitsua da besteen kasuan, batez ere latinoamerikarren artean: kolonbiarren %35ek izena emanda daukate gizarte segurantzari, ekuadortarren %38k eta boliviarren %62k. Erregimen orokorra ia datu horien alderantzizkoa da. Bien artean autonomoen eta nekazarien erregimena dago.

7. grafikoa

Nazionalitate nagusiak izena emana duten erregimenen arabera. 2005-12-31




Iturria: EINKo datuak.

6. taula. Gizarte segurantzaren izena emana dutenen tasa nazionalitate nagusien arabera. 2006

	Errolatutak	Izema emanda	Iz. Emanikoen %
Kolonbia	10.866	5.054	46,5
Ekuador	7.539	4.181	55,5
Maroko	7.397	2.819	38,1
Portugal	6.262	5.366	85,7
Errumania	6.166	2.083	33,8
Bolivia	5.983	1.368	22,9
Gainerakoa	39.334	15.332	39,0
EB	14.291	9.478	66,3
Ez EB	69.256	26.725	38,6
Guztira	83.547	36.203	43,3

Iturria: EINKo datuak.

1. mapa. Nazionalitate garrantzitsuenen banaketa eskualdeka.



Iturria: EINKo datuak.